

BAPOREA



BILDUMA

# Pupi eta burua hutsik zuen gizona

María Menéndez-Ponte

Irudiak: Javier Andrada



ikasmina

Argitalpen-zuzendaritza: Elsa Aguiar  
Koordinatzailea: Paloma Muiña  
Hizkuntza-aholkularitza: Ramon Olasagasti (Bakun S.L.)

© testuarena: María Menéndez-Ponte, 2009

© irudiena: Javier Andrada, 2009

© Ikasmina argitaletxea, 2011

Huertas de la Villa, 9  
48007 Bilbo (Bizkaia)  
[www.grupo-sm.com](http://www.grupo-sm.com)

BEZEROENTZAKO ARRETA-ZERBITZUA

Tel.: 902 121 323

Faxa: 902 241 222


Helbide elektronikoa: [clientes@grupo-sm.com](mailto:clientes@grupo-sm.com)

Titularren baimenik gabe, debekatuta dago lan hau birsortzea, banatzea, publikoki hedatzea edota eraldatzea, Legeak aurreikusitako salbuespenetan izan ezik. Jo CEDROra (Eskubide Erreprografikoen Espainiako Zentroa, [www.cedro.org](http://www.cedro.org)) lan honen zatiren bat fotokopiatzeko edo eskaneatzeko beharra baduzu.

*Nire ahizpari,  
beti haur, haur beti.*

Bizilagun batek Conchiri  
esan dio bosgarreneko gizonak  
burua hutsa duela, horrela  
entzun du behintzat Pupik,  
eta oso kezkatuta geratu da.

Ez daki zehazki zer  
gaixotasun izango den hori,  
baina pentsatu du ez duela  
ederra izan behar.







Parkera iritsi orduko,  
Natxorengana joan da Pupi,  
bere zalantza argitzera.

–Aizu, Natxo, zuk badakizu  
zer den *putza*?

–Puzkerraren lehengusu harroputza  
–erantzun dio Natxok barrez.

–Puzkerrak lehengusua dauka?  
–galdetu du Pupik, xalo baino xaloago.

–Ez, motel.

Txantxetan ari nintzen.






–Izan ere, pareko bizilagunak esan du  
bosgarrenean bizi den gizonak burua  
*putza* duela.

–Burua hotza duela esango zuen.  
Burusoila al da?





- Ez, beste gaixotasun bat da, baina ez dut gogoan.
- Ilerik badu buruan?
- Inguruan bai, baina kaskoan ez.
- Orduan burusoila da, nik esan dizudana.





–Eta hori larria da?

–Ez, ez! Nire aitona ere burusoila da, eta ez da ezer gertatzen. Tira, ezkuta gaitezen piramidearen barrualde hutsean Kokek aurki ez gaitzan.

–Oraintxe gogoratu naiz! –esan du Pupik pozarren–. Burua hutsa duela esan du bizilagunak. Zer esan nahi du horrek, Natxo?

–Horixe, hutsa dagoela, ez duela ezertxo ere barruan.